



2) BALOREZKO PROPOSAMENA:

Bezeroei gradu ezberdinetako ikasleekin hitz egiteko aukera ematen die, unibertsitatearen inolako esku-hartzerik gabe. Horrela beraiek aukeratutako pertsonarekin **hizketaldi** bat izateko aukera izango dute, nahi dituzten galdera guztiak egin ahal izateko. Baina ez hori bakarrik, gure plataformak, ikasleei mesede egiteaz gain, unibertsitateko ikasleei diru-sarreraren aukerak ere eskaintzen dizkie (**nobedadea**).




Orientaziorako milaka aplikazio daude, hala nola, “PickDream”, “Y ahora qué”, “Test de orientación”, “Uniscopio”, “GoCoqr”, etab. Alabaina, hauetako gehienak bokaziozko testak egiteko aukera ematen duten arren, kasu askotan hau ez da nahikoa izaten ikaslearentzat. Gainera, aplikazio hauetako asko unibertsitate ezberdinei **publizitatea** egiteko ordainduak izaten dira eta beraz informazio orokorra baino ez dute ematen. Espero bezala, graduari eta unibertsitateari buruz, informazio ona baino ez dute eskaintzen, askotan **faltsua** izan daitekeena.



Gure aplikazioan horrelakorik ez gertatzeko eta **ziurtasuna bermatzeko**, aholkulari gisa parte hartu nahi duen ikasle orori zenbait **ziurtagiri** eskatuko zaizkio. Alde batetik, **unibertsitateko matrikula** non ikasten ari den ikastaroa eta titulua agertzen diren eta bestetik ikasleari **legezko baldintzak** onartzeko eskatuko zaio (hauen artean, ikasleari dirua itzultzeko betebeharra onartu beharko du bilerara joan ezin bada).

Bestetik orientazioa behar duen ikaslearen aldetik, ere eskatuko zaio legezko baldintzak onartzea (hauen artean ikasleak dirua galduko duela, bi egun lehenago hizketaldira edota bisitara aurkeztuko ez dela jakinarazten ez badu). Hau ezinbestekoa da gure aplikazioak, bezeroek asko baloratzen duten elementua izateko: **arrikuak murriztea**.

Bestetik, bietan **CAPTCHA** (Completely Automated Public Turing test to tell Computers and Humans Apart) galdera-erantzunen autentifikazio gisa ezagutzen den **segurtasun-neurria** erabiliko dugu robot bat ez dela ziurtatzeko.



Gure enpresak **balore kuantitatiboak eta kualitatiboak** bermatzen ditu. Alde batetik, parte hartzen duten ikasleei laguntzeko helburua dugunez, eskuragarriak diren prezioak ezartzen saiatzen gara bi alderdiei laguntzeko. Eskuragarritasunarekin batera, aplikazioa bera eskuratzea oso erraza da eta publiko guztiaren esku dago.



Bestetik diseinuari dagokionez, praktikotasuna eta originaltasuna kontutan hartuko genuke, aplikazioaren funtzionamendua ahalik eta errazena izateko pertsona guztientzat. Honen haritik, “Tinder” antzeko formatu bat erabiliz, intuitiboa eta egungo ikasleen belaunaldiarentzat ezaguna dena erabilerara erraztuko du.

Gainera, interesa edo interesik eza adierazteko eskuinera edo ezkerrera lerratzeko prozesuak erraztu egiten du erabaki azkarrak hartzea. Are gehiago, “**matchmaking**” formatu interaktiboak erabiltzaileen **parte-hartze aktiboa** sustatzen du. Profilak arakatzera, aukera berriak ezagutzera eta ezarri nahi dituzten konexioei buruzko erabakiak hartzera gonbidatzen die.



Bestalde, bezeroen **gogobetetasuna** oso garrantzitsua denez guretzat, bezeroaren esperientzia ahalik eta onena izateko hizketaldi bakoitza amaitzerakoan ikasleak bere esperientzia iradokitzeke eskubidea izango du (iruzkinak eginez edo izarren bitartez beste ikaslearen zerbitzua ebaluatuz). Horrela, beste ikasle batzuk esperientzia hauetatik gidatu ahal izango dira, bilatzen duten profila den jakiteko. Hau, erabiltzaileen fidagarritasuna eta segurtasuna bermatzeko erabiliko dugu, beste asmo batzuk dituzten erabiltzaileak baztertzeko.

Adibidez, kazetaritzako orientatzaile bat bilatzeko asmoa duen erabiltzaileak, bi profil ezberdinekin topo eginez gero, hauek dituzten **puntuazioak** aztertuz beste ikasle batzuek orientatzaile horrekin izandako esperientziatik gidatua izateko aukera izango du. Kasu honetan 0tik 5era **izarren bidezko puntuazio** sistema erabiliko dugu eta profiletan iradokizunak egiteko eskubidea izango du erabiltzaile orok. Gainera, puntuazio oso eskasak dituzten profilak (eta iradokizun negatibo asko dituztenak) aplikaziotik baztertuko ditugu, haien sarbidea ukatuz. Edozein kexa egonez gero erabiltzaileak gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango du (webgunearen bitartez, aplikazioaren bitartez, sare sozialen bitartez...) eta gu izango gara egoera horren erantzule, betiere gure erabiltzaileen **eskubideak defendatuz**.